



XXVII. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

EPAIMAHAIAREN AZKEN ERABAKIA:

XXVII. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko helburuarekin Andoaingo Udalak izendaturiko epaimahaia honako hauek osatu dute:

- Mahaiburua: Estibalitz Mujica Tolaretxipi, Andoaingo Euskara zinegotzia.
- Mahaikideak: Goio Arana, Allande Boutin, Marijo Deogracias eta Idurre Eskisabel.
- Idazkaria: Arantza Aguado.

Epaimahaiak ondorengo azken erabakia hartu du, aho batez.

AZKEN ERABAKIA

BALORAZIO OROKORRA

Rikardo Arregiri bere gaztetasunean eten zitzaion bide emankorrari jarraipena eman nahiak eta euskarazko kazetaritza saritzeko premiak bultzatu zuten duela hogeita zazpi urte Andoaingo Udala sari hau antolatzen, eta horixe da gaur egun ere ahalegin horretan mugiarazten duena.

Ildo horretan, ezinbestekoa da azpimarratzea aurtengo lanek izan duten kalitatea. Bai Kazetari Berria sarian zein Rikardo Arregi Kazetaritza Sarian aurkeztu diren lanak, euskarazko kazetaritzaren aberastasunaren eta sasoi onaren adierazle dira. Horren lekuko, aurten epaimahaiak bi aipamen berezi egin nahi izana.

Erreportajeak, elkarrizketak, kronikak eta ekitaldi zehatzen jarraipenak, irrati saioak, iritzi artikulak eta ikus-entzunezkoak izan dira aurkeztutako lanen artean, eta aurten bai, komunikabide nazionalak zein herri komunikabideak izan dira lehian, nor baino nor.

Kalitatean bakarrik ez, kopuruan ere gora egin dute hogeita zazpigarren edizioan kazetaritza lanek. Hala, 31 lanen artean egin du hautua epaimahaiak eta, ez da batere lan erraza izan, kazetaritza lan zinez bikainak izan direlako lehian.

Eskerrik beroenak eman nahi dizkie epaimahaiak lehiaketara aurkeztu diren kazetari guztiei eta, bide batez, kalitatezko euskal kazetaritza lantzen segi dezaten animatu nahi ditu.

1.-EPAIMAHAIAREN SARI BEREZIAK.



Ikusita aurten aurkeztutako lanen kalitatea, epaimahaiak erabaki du bi sari berezi ematea, bata Kazetari Berria atalean eta bestea sari nagusian:

Kazetari berria atalean, **Mikel Ibargoienek** GAUR 8 hedabidean argitaratutako emakume kirolarien inguruko saila. Oso lan interesgarria, ikuspuntu desberdinetik jorratua, hau da, generoaren ikuspegitik, mahai ganean jartzen duena gaiaren konplexutasun osoa. Emakumeak elkarrizketatuz adieratzen du aldi berean nola eraman ditzaketen aurrera beren kirolari, ikasle, langile, familia eta emazte bizitzak, oraindik ere matxista samarra den gure gizartean. Kirol kazetariei hitza eman die, hedabideetan kirolari emakumeen presentzia eskasari buruzko eztabaida piztuz. Topikoetatik ihes egiten du Mikelek, eta kirol adituak ez diren irakurleak edo kirola gehiegi gustatzen ez zaienak ere arazoaren muinera erakartzen ditu. Bestalde, neska kirolariek bidea egiten dutela adierazten du, etorkizuna daukatela azpimarratu. Bere artikulu sortak "publiko posible" bat sortzen laguntzen du, finean.

Sari nagusiaren atalean, berriz, **Iñigo Astizek** BERRIAN idatzitako *Kantuan diren lekuak* izeneko erreportajeak merezi du, epaimahaiaren ustez, beste sari berezia, kultur kazetaritzari sormena eransten baitio bere lanean, eta informazio esparrutik esparru literariora egiten baitu jauzi. Literaturatik gertu dagoen arren, hizkera oso arina da, guztiz bisuala, umore ukitukoa askotan. Iñigok lekuan bertan kokatzen gaitu, lekutik hasten da deskribapena eta bidaia musikalean zein pertsonalean murgiltzen gaitu. Hainbat jenderekin egonik kantuei buruzko lekukotasunak bilduz eta zenbait abestiren gaurkotasuna adierazten du, zeren eta, oraindik ere, ezagunak eta kantatuak baitira, belaunaldiz belaunaldi egindako transmisioari esker. Horren adierazle, besteak beste, *Martin Larralde*, Joseba Sarrionandiak idatzitako hitzak, Ruper Ordorikak musikatua, Hazparneko herrian XIX. mendean gertatu istorio tragiko bati buruzko bertsoak oinarritzat harturik.

Sariduna: **Mikel Ibargoienek**.

Saritutako lana: **Emakume kirolarien inguruko saila**, 2014ko abuztutik 2015eko maiatzera, **GAUR 8** hedabiderako egindako lanagatik.

Saria: diploma eta Xabier Lakaren serigrafia.

Sariduna: **Iñigo Astizek**.

Saritutako lana: **Kantuan diren lekuak** izeneko erreportajeak, 2014ko abuztuan



BERRIA hedabiderako egindakoak.

Saria: diploma eta Xabier Lakaren serigrafia.

2.-KAZETARI BERRIA SARIA.

Forma aldetik ederki dago idatzita Eskoziaren independentzia erreferendumaren gaiari buruzko monografiko eta artikulu sorta, horretarako, hainbat kazetaritza genero ezin hobeki jorratuta. Testuingurua bikain marraztuta, gaian sakontzea lortu du Samarak: ikuspegi historikoa erantsi dio, datuen analisi ona egin, hainbat iturritatik edan eta iritzi kritikoak ere jarri ditu begi aurrean, hau da, giltzak ematen ditu irakurlea errealitate hori interpretatzeko gai izan dadin, alde batera edo bestera lerrarazi barik.

Bere 24 urteekin kazetari osoaren irudia transmititu digu, datuak, elkarrizketak, eta iritziak plazaratzeaz gain analisirako eta hausnarketarako tarteak ere hartuz. Era berean, epaimahai honek aipamen berezia egin nahi lioke hedabideak horrelako kazetari gazte bati eskaini dion konfiantzari.

Sariduna: **Samara Velte.**

Saritutako lana: 2014ko irailean BERRIA egunkarian Eskoziako erreferendumari buruz argitaratutako artikulu sorta..

Saria: 3.000 euro, diploma eta Xabier Laka eskultorearen oroitikurra.

3.- SARI NAGUSIA.

Ia ahaztuta genuen egoera gogorra, belaunaldi oso baten bizipen izan zena, gogora ekarri digu berriz ere Julenek bere ikus-entzunezkoaren bidez. Ahanzturatik atera eta balioan jarri du 80 eta 90eko hamarkadetan HIESA pairatzen zuten gaixoen egoera ezagutarazteko eta hobetzeko Jon Salaberri arrasatearrak egindako lana. Hala, Joxe Arantzabalek argitaratutako artikulua eta ikerketa baliatuz, primeran egokitu du informazio hori guztia ikus-entzunezkoen formatura. Aipatzekoak dira bai artxiboen erabilpena bai elkarrizketak emateko editaia landu eta zaindua.

Jon Salaberriren irudi heroikotik ihes egin eta bere konplexutasuna erakutsi digu, bere argi-ilunak, familiarreko harremanak, lagunekin bizitakoak, gaixotuta bestearekiko erakutsi arreta eta enpatia zein auzolana bultzatzeko gaitasuna, osasun arloko profesionalen ikuspegia, politikoen adierazpenak...



Azpimarratzekoa, era berean, kazetari saridunak erakutsi duen erregistro handia, horren adibide, sari honetara aurkeztu duen oso bestelako lana, *Pedalka* izeneko ikus-entzunezkoa: Gipuzkoan gaindi bost etapatan bizikletaz egin bidaia, txirrindularien gorabeherak adieraziz, Julen bera ziklista aparta izanda!

Sariduna: **Julen Iriondo Martinez de Zuazo.**

Saritutako lana: 2015ko maiatzaren 5ean, **GOIENAN** ipinitako ***Jon Salaberri*** izeneko ikus-entzunezkoa .

Saria: 9.000 euro, diploma eta Xabier Laka eskultorearen oroitikurra.

Aho batez harturiko Azken Erabakiaren akta hau epaimahaikide guztiok sinatzen dugu gaur, Andoainen, bi mila eta hamabosteko maiatzaren 27an.

Estibalitz Mujika

Goio Arana

Allande Boutin

Marijo Deogracias

Idurre Eskisabel

Arantza Aguado